

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Landa-etxeak eta kanpinak 5 mailatan sailkatuko dira, dauzkaten zerbitzu eta instalazioen arabera

Nafarroan 759 landa-etxe eta 24 kanpin daude erregistratuta; landa-etxeetan guztira 5.454 lagunentzako lekua dago eta kanpinetan 12.188rentzako.

Miércoles, 09 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran ezagutzera eman dituen bi foru-dekreturen proiektuen arabera, landa-etxeak eta kanpinak bost mailatan sailkatuko dira, bezeroen eskura dauzkaten zerbitzu eta instalazioen kalitatea kontuan hartuta.

Araudi berriak gaur egungoa aldatuko du, sailkapena gainerako autonomia erkidegoetakoarekin eta Europakoarekin berdintze aldera. Ondorioz, estatuko eta atzerriko turistek errazago ulertuko dute establezimendu bakoitzaren maila zein den, eta turismo-agentziek hobeto jakingo dute eskaintza zertan den. Gainera, errazagoa izango da estatuak dagozkion eskumenetatik kanpo antolatzen dituen publizitate-kanpainetan Nafarroako bitartekoak sartzea.

Irizpide berriei jarraituz, landa-etxeek eta kanpinek izar bat, bi, hiru, lau edo bost eduki ditzakete. Gaur egun, bi establezimendu mota horiek hiru mailatan daude sailkatuta.

Foru Komunitatean 759 landa-etxe daude erregistratuta eta, guztira, 5.454 lagunentzako lekua dute. Horietatik 615 etxe osoa errentan hartzeko dira, eta honela daude sailkatuta: 156 landa-etxek hosto bat dute, 427 bi hosto eta 32 goi-mailakoak dira, hiru hostodunak. Gainerako 144 landa-etxeetan logelak hartzen dira errentan eta etxea titularrarekin partekatzen da; horiek honela daude sailkatuta: 59 landa-etxek hosto bat dute, 902k bi hosto eta 4k hiru hosto.

Kanpinei dagokienez, 24 daude eta 12.188 lagunentzako lekua daukate. Horietatik 3 hirugarren mailakoak dira, 12 bigarren mailakoak eta 9 lehen mailakoak.

Landa-etxeak

Landa-etxeei buruzko foru-dekretuaren proiektuak ekainaren



Ostatu turistikoa.

28ko [243/1999 Foru Dekretua](#) aldatuko du. Proiektu horretan zehatz-mehatz daude azalduta landa-etxeari maila bat egokitzerakoan establezimenduko eta inguruko zer ezaugarri eta zerbitzu hartuko diren kontuan.

Etxearen barrualdeari dagokionez, adibidez, honako hauek baloratuko dira: logelak titularraren etxebizitzatik aparte egotea, berokuntza zentrala edukitzea, zorua tronadurazkoa izatea, egongela apaina izatea eta tximinia edukitzea. Kontuan hartuko dira, baita ere, logeletako ezaugarriak, altzariak eta ekipamendua eta bainu-gelen kopurua eta egoera. Horrez gain, barruko aisia-elementuak (telebista, bideoa, mahai-jokoak, e.a.) eta ostatuaren kanpoaldeko jarduera osagarriak ere baloratuko dira.

Kanpoaldeari dagokionez, honako hauek hartuko dira aintzat: seinaleztapena, sarbideak, eraikinaren antzinatasuna, fatxadaren estetika, terraza edo atari estalia edukitzea eta landa-etxearen kanpoko lurren egoera.

Kanpinak

Kanpinen gaineko araudi berriak martxoaren 30eko [24/2009 Foru Dekretua](#) aldatuko du; Dekretu horren bitartez Nafarroako Foru Komunitateko Turismo Kanpalekuen Antolamendua arautu zen.

Establezimenduak ebaluatzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan: sailen tamaina eta ekipamendua, eraikinen erabilerak, higiene-instalazioak, aisia-instalazioak, barrutiko zerbitzuak eta langileak.

Hala, kanpina goi mailako (5 izarreko) izan dadin, hainbat baldintza bete behar dira. Batetik, sailek 90 m² eduki behar dituzte, gutxienez, eta sailen %75ak argi-hartunea eduki behar du. Bestetik, kanpinak eduki behar ditu harrera, jatetxea, kafetegia edo autozerbitzua, supermerkatua, bilera-aretoa eta sendaketak egiteko eta lehen laguntza eskaintzeko gela. Higiene-instalazioei dagokienez, eduki behar ditu, gutxienez, 24 laguneko ur berodun bainugela bana, 32 laguneko dutxa bana, 28 laguneko komuna bana, 40 laguneko ur berodun konketa bana eta 60 laguneko harraska bana.

Gainera, aisia-instalazio hauek eduki behar ditu: helduentzako eta haurrentzako igerilekua, haur-parkea eta kirol-instalazioak. Baita zerbitzu hauek eskaini ere: telefonoa, kutxa gotorra, garbitegia, ibilgailu-garbitegia, gutun-en gestioa eta prentsa-salmenta.